



## OSOKO BILKURA

TOKIA: Udaletxea  
EGUNA: 29/10/2014  
HASIERA: 19:30  
AMAIERA: 19:50

## BERTARATUAK:

### ALKATEA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

### ZINEGOTZIAK

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)  
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)  
Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)  
María Begoña Salbidegoitia Arana (Bildu)  
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)  
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)  
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)  
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

### IDAZKARI NAGUSIA

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena



Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotzietz nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

## 1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen 2014ko irailaren 24ko akta mahai gainean uztea.

## 2.- Alkatetzaren dekretuak.-

Osoko Bilkurari urriaren 3ko 8/2014 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren berri eman zitzaion.

## 3.- Itunerako bidean.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) elkarlanean jarduteko Lankidetzahitzarmenari atxikitzea, "Alkateen itunerako bidean" ekimenari begira, helburu duena ekimen horrekin bat egiteko Busturiako Udalaren borondatea eta, EEErekin batera udalerrarentzat 2020. Urtera arteko plangintza energetikoa definitzeko lan egiteko interesa adieraztea.

Plangintza horrek udal kudeaketa energetikoaren hobekuntzarako jarduketa zehatzak definituko ditu, Udalak eta EEEK elkarrekin adosten dituzten sektorean eta gaietan.

## 4.- Bilduko zinegotzien mozioa Kataluniako galdeketa gainean Auzitegi Konstituzionalak ebatzitako galarazpenari buruz.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bilduko zinegotzien Kataluniako galdeketa gainean Auzitegi Konstituzionalak ebatzitako galarazpenari buruz aurkezturiko mozio hau:

"2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botoekin eta aurkako 28ekin. Berresteko ez diren herri-kontsulterei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behineko bertan behera utz zitzaiten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behineko bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, BUSTURIAko Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

ERABAKI A

- BUSTURIAko Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, BUSTURIAko Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

- BUSTURIAko Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsioarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.

- BUSTURIAko Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behineko bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

- BUSTURIAko Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitatari bidaliko dio."

## 5.- Erroxeli Ojinaga Filibiren berrazterketa-errekurtsioa.-

Ikusita Erroxeli Ojinaga Filibik ezarritako berrazterketa-errekurtsioa, hark Interneten argitara emandako blog baten edukiaren inguruko jarrera gaitzesteko Osoko Bilkurak uztailearen 2an hartutako erabakiaren kontra; ikusita Idazkari Kontu-hartzaileak



horren inguruan igorritako txosten juridikoa, ondorioztatzen duena berrazterketa-errekurtsoa onartzea eta, ondorioz, aurkaturako erabakia ondoriorik izan gabe deuseztatzea bidezkoa dela, administrazioaren jarduketak antolamendu juridikoak esleitzen dizkion helburuak betetzeari lotuta egon behar baitu eta horien artean ez baitago haren mendeko herritarrei kalifikatzaileak jartzea; Osoko bilkurak aho batez erabaki zuen aipatu erabakia baliogabetzea.

## 6.- 2015erako Zerga Ordenantzen aldaketa.-

Tokio Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkurak ondokoak erabaki zituen aldeko sei botorekin eta hiru abstentziorekin:

- 1.- Behin-behinean onartzea hurrengo ordenantzaren aldaketa: zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera ekonomikoak burutzearen ondoriozko tasak arautzen dituen Udal Zerga Ordenantza (Axpeko frontoi estaliko eta Altamirako tenis-pista estalietako kirol-instalazioen tarifen arauketa bera ezartzeko eta zaborra biltzeko zerbitzuan % 5eko hobaria duen tarifa ezartzeko hondakin organikoen gaikako bilketarako planean izena ematen duten etxebizitzentzat).
- 2.- Jendaurrean 30 egunez jartzea; epe horretan, interesdunek txostenak aztertu eta egoki irizten dieten kexak aurkeztu ahal izango dituzte; argitalpena iragarki-taulan, udal webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egingo da.
- 3.- Jendaurrean egoteko epea bukatutakoan, dagozkion behin betiko akordioak egingo dira, aurkezturiko kexak ebatzita eta behin-behineko akordioak aipaturiko aldaketak onartuta. Ez balitz kexarik aurkeztuko, akordioa behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren bilera egin behar izan barik.

- 4.- Aurreko atalak aipatzen dituen behin betiko akordioak, automatikoki hala bihurturiko behin-behinekoak barne, eta aldaketen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta hala izan arte ez dira indarrean sartuko.

Zearreta jauna proposaturiko hobariaren kontra azaldu zen, herritar guztiek ez dituztelako aukera berberak izango hondakin organikoen bilketa kanpainan parte hartzeko; edukiontzi marroi gutxi daudenez, herritar batzuek gertu izango dute, baina beste batzuek, bereziki landa-eremuetan bizi direnek, ordea, oso urrun izango dute kanpainan parte hartu ahal izateko.

Alkate andreak erantzun zion denek izango dituztela parte hartzeko aukera berak, gauza bera gertatzen dela beira edo ontzien edukiontziekin eta helburua dela jendea gaikako bilketan parte hartzera animatzea eta horren gainean kontzientziatzea.

## 7.º.- adierazpen instituzionala emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bilduko zinegotziek aurkeztutako Adierazpen Instituzionala, Emakumeei Zuzendutako Biolentziaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta:

“Azaroak 25 dela eta, “Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna”, Euskal Herria Bildutik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugari eragindako biolentzia matxista izan dugu gure artean. Feminizidioa adierazle nabarmenena duen biolentzia matxista hain zuzen ere. Desagertzetik urrundu eta geure jendarteren errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonomikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten ordea, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu, hainbat iritzi gune, epaile eta ordezkari politikoren aldetik.

Horregatik diogu biolentzia matxistari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendarterean eraldaketa ezinbestekoa dela.

Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarteratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoitutzat, beharrezkotzat edo saihestezkozat jotzen baita. Eta honela, erlijioak, hizkuntzak, komunikabideak, familiak eta hezkuntzak biolentzia egonkortu dadin, jendarteratze mekanismoen eragile bilakatzen dira.

Horregatik, emakumeok biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreki bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Biolentzia matxistari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.

- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.



- Baztertzailleak diren adierazpen eta gauzpen kulturei aurre egin, eta biolentzia matxistaren eragiletzat jo halakotzat hartuak ez baina badiren fenomeno sozio-kultural eta sinbolikoak, hauen bitartez ematen baita gehienetan biolentzia matxistaren legitimazioa.

- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia matxista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.

- Biolentzia matxistaren aurrean gizonen duten protagonismoa eta jarrera hartzeak aztertzeraz bultzatu: eraso zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten arazoak, emakumezkoekin eraikitzen dituzten harremanak, balizko jardunbide matxisten aurreko beraien jarrera, edo eraso matxista baten aurrean har lezaketzen jarrera pasiboa eraso babestu ez arren.

- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten harremanak sortu eta eraikitzeke garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.

Honengatik guztiagatik, busturiko Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartzu.

- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.

- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.

- Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.

- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal gunekoak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzeraz".

## 8.- Higiene Landa Zentroko etxebizitzaren alokairua.-

J. S. B.rekin Higiene Landa Zentroko lehen solairuko udal etxebizitzaren alokairurako sinaturiko alokairu-kontratua amaitzeaz egonda (2014ko azaroaren 2an) eta kontratuan aurreikusitako gehieneko epea eta bere luzapenak (8 urte) amaituta, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen S. andreari baimena ematea etxebizitza prekarioan erabiltzeko, Udalak higiezinarekin zer egin erabaki arte eta urtebetez gehienez.

## 9.- Galde-eskeak.-

Zearreta jaunak gogorarazi zuen bere taldeak eskaera egin diola Alkate andreari udalerrian gertatutako hirigintzako arau-hausteengatik txostenak batzorde monografikoan aztertzeke, eta, eskaera horri kasurik egin ez zaionez, berriz ere egiten dutela eskaera.

Alkate andreak esan zuen une horretan lehentasuna Plan Nagusia onartzea zela eta ikusi beharko zela horrek txostenei nola eragiten dien.

Zearreta jaunak erantzun zion batak eta besteak ez zutela zerikusirik, hirigintzako arau-hausteak baitziren.

Zearreta jauna eta Etxebarria andrea kexu ziren Euskara Batzordearen deialdiak jaso ez zituztelako eta ez zelako hori gertatzen zen lehen aldia, gero ez bertaratzeagatik kritikak jasota.

Eta besterik gabe, alkate andreak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andreak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

Alkatea,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Idazkaria,

Víctor-Martín Amparan Álvarez